

VI DE CÓMO LLEGARON UNOS TITIRITEROS Y DE LO QUE SUCEDIÓ DESPUÉS

Un día de Mayo, al anochecer, se presentaron en el camino real tres carros, tirados por caballos flacos. Se detuvieron en lo alto del prado de Santa Ana.

No podía Tellagorri, gaceta de la taberna de Arcale, quedar sin saber en seguida de qué se trataba; así que se presentó al momento en el lugar, seguido de «Marqués».

Después de varias preguntas y respuestas y de decir el hombre que era francés y domador de fieras, Tellagorri se lo llevó a la taberna de Arcale.

Martín se enteró también de la llegada de los domadores con sus fieras enjauladas, y a la mañana siguiente, al levantarse, lo primero que hizo fué dirigirse al prado de Santa Ana.

Comenzaba a salir el sol cuando llegó al campamento del domador.

Uno de los carros era la casa de los saltimbanquis. Acababan de salir de dentro el domador, su mujer, un viejo, un chico y una chica. Sólo una niña de pocos meses quedó en la carreta-choza jugando con un perro.

VI NOLA HELDU ZIREN TXERPOLARI BATZUK ETA ZER GERTATU ZEN GERO

Egun batean, ilunabarrean, hiru gurdi azaldu ziren errepidean, zaldi argal tiratuak. Santa Anako belardiaren goialdean gelditu ziren.

Ezin zuen Tellagorrik, Arkaleren tabernako berriketariak, segituan zer zen jakin gabe geratu; hala, ez bat eta ez bi azaldu zen han, Markes atzetik zuela.

Hainbat galdera-erantzunen ondoren, eta gizonak frantsesa eta piztia-hezlea zela esan zuelarik, Arkaleren tabernara eraman zuen Tellagorrik.

Martinek ere berehalaxe jakin zuen hezleak iritsi zirela beren piztia kaiolatuekin, eta biharamunean jaiki eta Santa Anako belardira joatea egin zuen aurreneko gauza.

Eguzkia ateratzen ari zen hezlearen kanpamentura ailegatu zenean.

Gurdietako bat saltinbankien etxea zen. Barrutik atera berriak ziren hezlea, haren emaztea, agure bat, mutil bat eta neska bat. Hilabete gutxiko nexka bat besterik ez zen gurdi-etxolan geratu, txakur batekin jostatzen.

El hombre, ayudado por el viejo y por el chico, trazó con una cuerda un círculo en la tierra y en el centro plantó un palo grande, de cuya punta partían varias cuerdas que se ataban en estacas clavadas fuertemente en el suelo.

El domador buscó a Tellagorri para que le proporcionara una escalera; le indicó éste que había una en la taberna de Arcale, la sacaron de allí y con ella sujetaron las lonas, hasta que formaron una tienda de campaña de forma cónica.

Los dos carros con jaulas en donde iban las fieras los colocaron dejando entre ellos un espacio que servía de puerta al circo.

El domingo, en el momento en que la gente salía de vísperas, se presentó el domador seguido del viejo en la plaza de Urbia, delante de la iglesia.

Recorrieron los dos hombres las calles del barrio viejo y luego salieron fuera de puertas, y tomando por el puente, seguidos de una turba de chicos y chicas llegaron al prado de Santa Ana, se acercaron a la barraca y se detuvieron ante ella.

A la entrada la mujer tocaba el bombo con la mano derecha y los platillos con la izquierda, y una chica desmelenada agitaba una campanilla.

Gizonak, agureak eta mutilak lagunduta, soka bat hartu eta zirkulu bat marraztu zuen lurrian; haren erdian makila handi bat sartu zuen, puntatik hainbat soka ateratzen zirena, eta sokak lurrian sendo iltzatutako makiletan lotu zituzten.

Hezleak Tellagorriengana jo zuen eskailera bat eman ziezaion; hark bazela bat Arkaleren tabernan adierazi zion, hartu zuten tabernatik eta harekin eutsi zieten olanei, harik eta forma konikoko kanpadenda bat osatu zuten arte.

Piztiak zeuden kaiolakiko bi gurdiak, tarte bat utziz ipini zituzten, zirkuaren ate moduan balio zezaten.

Igandean, jendea bezperetatik ateratzen ari zen unean, atzetik agurea zuela, hezlea azaldu zen Urbiako plazan, elizaren aurrean.

Auzo zaharreko kaleak korritu zituzten bi gizonak, eta gero ateetatik kanpo atera, eta, zubitik abiatuta, neska-mutil samalda bat atzetik segika zutela, Santa Anako belardira heldu ziren, barrakara inguratu eta haren parean geratu ziren.

Sarreran, emakumeak dunbala jotzen zuen eskuin eskuarekin eta txindatak ezkerrekin, eta ile nahasiko neska batek txilin bati eragiten zion.

Este ruido cesó a una señal imperiosa del domador, que dijo con voz enfática:

— Aquí verán ustedes los osos, los lobos, el león y otras terribles fieras. La entrada no cuesta más que un real. ¡Adelante, señores! ¡Adelante!

La mujer abrió la lona que cerraba la puerta y se puso a recoger los cuartos de los que iban pasando.

Martín presenció todas estas maniobras con una curiosidad creciente, pero no tenía dinero.

Zarata hura hezlearen aginte-seinale batekin isilarazi zuen, eta orduan, esan zuen ahots hanpatuaz:

-Hemen hartzak, otsoak, lehoia eta beste piztia izugarriak ikusiko dituzue. Erreal bat besterik ez du sarrerak balio. Aurrera, jaunok! Aurrera!

Emakumeak atea ixten zuen olana zabaldu zuen, eta sartuz zihoazenen xoxak jasotzen hasi zen.

Martinek gero eta jakin-min handiagoz ikusten zituen maniobra haiek guztiak; baina ez zeukan dirurik.

Se tendió en el suelo y estaba así con la cara junto a la tierra cuando se le acercó la chica haraposa del domador que tocaba la campanilla a la puerta.

— Eh, tú ¿qué haces ahí?

— Mirar --dijo Martín.

— No se puede.

— ¡Ah! ¿Pero tú eres de aquí?

— Sí

— ¿Y no sabes pasar?

— Si no dices a nadie nada ya te pasaré.

— Yo también te traeré cerezas.

— ¿Cómo te llamas?

— Martín, ¿y tú?

— Yo, Linda.

— Así se llamaba la perra del médico --dijo poco galantemente Martín.

— Anda, pasa.

Se deslizó Martín y luego ella.

— ¿Cuando me darás las cerezas? --preguntó la chica.

— Cuando esto se concluya iré a buscarlas.

Lurrean etzan zen eta halaxe zegoen, aurpegia lurraren kontra jarrita, atean txilinari eragiten zion hezlearen neska zarpailtsua inguratu zitzaionean.

-E, hi, zer ari haiz hor?

-Begira nagon -esan zuen Martinek.

-Ezin duk.

-A, baina hi hemengoa al haiz?

- Bai.

--Eta ez al dakin jendea pasatzen?

- Ez badiok inori ezer esaten, pasatuko haut.

-Eta nik gereziak ekarriko dizkinat.

-Nola duk izena?

-Nik Martin, eta hik?

-Nik Linda.

-Horrela zinan izena sendagilearen zakurrak -esan zuen Martinek galaitasun handirik gabe.

-- Tira, pasa hadi.

Sartu zen Martin eta haren atzetik joan zen neska.

-Gereziak noiz emango dizkidak? -galdetu zuen neskak.

-Hau bukatzen denean joango naun bila.

El espectáculo concluía. La gente se disponía a salir. Martín vió que el domador le miraba.

— Espera, tú no has pagado. Ahora nos veremos. Te voy a echar los perros como al oso.

Martín retrocedió espantado; el domador le contemplaba con una sonrisa feroz. Martín recordó el sitio por donde entró y empujando violentamente la lona la abrió y salió fuera de la barraca. Dió después Martín la vuelta al prado de Santa Ana, hasta detenerse prudentemente a quince o veinte metros de la entrada del circo.

Al ver a Linda le dijo:

— ¿Quieres venir?

— No puedo.

— Pues ahora te traeré las cerezas.

Bukatzen ari zen ikuskaria. Jendea ateratzeko prestatzen ari zen. Martinek hezlea begira zeukala ikusi zuen.

-Egon, hik ez duk pagatu. Oraintxe ikusiko diagu elkar. Zakurrak botako dizkiat, hartzari bezala.

Martinek atzera egin zuen, guztiz izututa; hezlea begira zeukan, amorruzko irribarre batez. Sartu zen lekuaz gogoratu zen Martin, eta olanari gogor bultza eginez ireki eta barratik atera zen. Gero, Martinek buelta eman zion Santa Anako belardiari, zuhertasunez zirkuaren sarreratik hogeit hamar metroa gelditu zen arte.

Linda ikustean esan zion:

-Nahi al dun etorri?

-Ezin nauk joan.

-Ba oraintxe ekarriko dizkinat gereziak.

Martín, al poco rato, volvió con la boina llena de cerezas. La Linda las puso en su delantal y estaba con ellas cuando se presentó el domador de nuevo. Martín se apartó dando un salto hacia atrás.

— No, no te escapes --dijo el domador con una sonrisa que quería ser amable.

Martín se quedó. Luego, el hombre le preguntó quién era, y él al saber su parentesco con Tellagorri, le dijo:

— Ven cuando quieras, te dejaré pasar.

Durante los demás días de la semana, la barraca del domador estuvo vacía. El domingo, los saltimbanquis hicieron dar un bando por el pregonero diciendo que representarían un número extraordinario é interesantísimo. Martín se lo dijo a su madre y a su hermana. La chica se asustaba al escuchar el relato de las fieras y no quiso ir.

Acudieron solo la madre y el hijo. El número sensacional era la lucha de la Linda con el oso.

Martin, handik gutxira, txapela gereziz beteta zekarrela itzuli zen. Lindak mantalean jarri zituen, eta hala zegoen hezlea osterara ere agertu zenean. Martin apartatu egin zen, atzeraka jauzi eginez.

-Ez, ez ezakela ihes egin -esan zion hezleak atsegina izan nahi zuen irribarre batekin.

Martin gelditu egin zen. Gero gizonak zein zen galdetu zion, eta Tellagorriekin zuen ahaidetasunaren berri jakitean, esan zion:

-Etorri hadi nahi duanean, utziko diat pasatzen.

Aste hartako hurrengo egunetan, hutsik egon zen hezlearen barraka. Igandean, saltinbankiek bando bat irakurrarazi zioten pregoilariari, ikuskari berezia eta guztiz interesgarria eskaini behar zutela esanez. Martinek haren berri eman zien amari eta arrebari. Neska ikaratu egiten zen piztien kontakizuna entzutean, eta ez zuen joan nahi izan.

Ama-semeak bakarrik joan ziren. Lindaren eta hartzaren arteko borroka zen ikuskari txundigarria.

Después del número sensacional que no entusiasmó al público, entró la mujer en la jaula del león.

La fiera debía estar enferma, porque la domadora no halló medio de que hiciese los ejercicios de costumbre.

Viendo semejante fracaso el domador, poseído de una rabiosa furia, entró en la jaula, mandó salir a la mujer y empezó a latigazos con el león. Este se levantó enseñando los dientes, y lanzando un rugido se echó sobre domador; el viejo ayudante metió, por entre los barrotes de la jaula, una palanca de hierro para aislar el hombre de la fiera, pero con tan poca fortuna, que la palanca se enganchó en las ropas del domador y en vez de protegerle le inmovilizó y le dejó entregado a la fiera.

El público vió al domador echando sangre, y se levantó despavorido y se dispuso a huir.

No había peligro para los espectadores, pero un pánico absurdo hizo que todos se lanzasen atropelladamente a la salida; alguien, que luego no se supo quién fué, disparó un tiro contra el león, y en aquel momento insensato de fuga resultaron magullados y contusos varias mujeres y niños.

Dos mujeres fueron recogidas con contusiones de importancia, una de ellas, una vieja de un caserío lejano que hacía diez años que no había estado en Urbia, la otra, la madre de Martín, que además de las magulladuras y golpes, presentaba una herida en el cuello, ocasionada, según dijo el médico, por un trozo del barrote de la jaula, desprendido al choque de la bala disparada por una persona desconocida.

El caso fué que la pobre mujer murió a la semana del accidente de la barraca, dejando huérfanos a Martín y a la Ignacia.

Ikusleei hainbeste ere gustatu ez zitzaien ikuskari txundigarri haren ondoren, emakumea lehoiaren kaiolan sartu zen.

Piztiak ondoezik behar zuen egon, zeren emakumeak, ahaleginean ari izanagatik, ez baitzuen lortu lehoiak ohiko ariketak egiterik.

Halako porrota ikusirik, amorrui ikaragarri batek hartuta sartu zen hezlea kaiolan, bidali zuen emakumea handik, eta lehoia zigorrarekin astintzen hasi zen. Altxatu zen hura hortzak erakutsiz, eta orro eginez hezlearen gainera joan zen; laguntzaile zaharrak, kaiolaren barren artetik, burdinazko palanka bat sartu zuen gizona piztiarengandik apartatzeko, baina halako suerte txarrez, non palanka hezlearen jantzietan trabatua geratu baitzen, eta, babesteko ordeztan, piztiaren atzaparretan utzi zuen gizona mugitu ezinik.

Ikusleek hezlea odola zeriola ikusi zuten, eta beldurrak akabatzen altxatu ziren, ihes egiteko.

Ikusleentzat ez zegoen arriskurik, baina izumen burugabe batek irteerara joatera bultzatu zituen denak itsumustuan; baten batek, eta gero ere ez zen jakin zeinek, tiro egin zion lehoiari, eta ihesaldi zoro hartan zenbait emakume eta ume ubelduta eta makatuta atera ziren.

Bi emakume makatu handi samarrekin jaso zituzten; bat urrutiko baserri bateko atso bat zen, hamar urtean Urbian egon ez zena; bestea, Martinen ama, eta hark, ubelduez eta makatuez gainera, zauri bat zuen lepoan, sendagileak esan zuenez, kaiolako barraren puska batek eragina, pertsona ezezagun batek bota zuen balaren astinaldiaren ondorioz askatuta.

Gauza da barrakako istripua izan eta handik astebetera hil zela emakume gajoa, Martín eta Ignazia umezurtz utzirik.